

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### HARANeko UDALA

#### **Epea irekitzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak ordaintzeko**

2020ko irailaren 21etik azaroaren 20ra bitarteko egun balioudunetan (egun biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute zerga, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz irailaren 21etik aurrera.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen Zergabilketako Arautegi Orokorren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Harana, 2020ko abuztuaren 26a

*Alkatea*

*ROSA MARIA IBARRONDO MANZANOS*